

## KANPAINARAKO HELDUENTZAKO OINARRIZKO ESKULIBURUA

“Zure ahalegina, denon atsegina”.

### 1. Sarrera (oinarriak).

- Gure ustez, konpromiso hitza “bidali gaituzten misioarekiko erantzukizuna” da. Gehiago IZAN, gehiago BALIO eta ONGIA gehiago EGITEKO misio horrek gure bizi-zentzuari eta koherentzia pertsonalari eragiten die, denon ongizateari egiten diogun ekarpena zalantzan jartzen du eta ahulenen alde ekiteko gonbita egiten digu. Gure konpromisoaren eraginez, mundu honek hobe izan behar du maila eta dimentsio guztietan.
- Jesusek berak adorea ematen digu: “Aukeratu zaituztet fruitua emateko, fruitu iraunkorra” (Jn 15,16), eta gonbita egin digu komunitatean ibiltzeko, munduan 'gatz eta argia' izanez, eraldaketa eraginez, senidetasun-sareak ehunduz, doakotasunean, entregan eta ahulenen alde bizitzeko, Jesusen estilora.
- Kristauen KONPROMISOA munduan IZATEKO eta EGOTEKO modua da, eta irteteko gonbita egiten digu gainerako pertsonekin topo egiteko, haien bizitzek "ukitu" egin gaitzaten eta gizon-emakume guztiontzako etorkizuna eraiki dezagun.

### 2. Bideoa.

2 minutuko bideoa da. Konpromisoari buruzko kanpaina esparrua aurkezten du. ‘OneDrive Campañas’ izeneko karpetan gordeta daude, baina lotura ere erantsi da:

[KONPROMISOARI BURUZKO BIDEOA](#) GAZTELANIAZ

[KONPROMISOARI BURUZKO BIDEOA](#) EUSKARAZ

### 3. Abestia.

Otoitz apur bat egitera animatzeko [Jesus Cabelloren “Contigo” abestia](#) entzutea proposatu da.

Como la lluvia trae la vida a los rincones de la tierra.

Como la luz encandila a las flores que la esperan.

Como la sal a la comida le da sabor y es discreta.

Como el camino invita a un tesoro en la meta.

**Seremos luz en las dudas, seremos sal en la tierra.**

**Seremos fuerza en la lucha, pues somos más que las arenas.**

**Seremos como la lluvia que anuncia la primavera.**

**Seremos como la luna que alumbra porque el sol la llena.**

Como silencio que responde y abre las puertas más secretas.

Como palabras enormes que traspasan las fronteras.

Como la brisa en el monte que siendo suave nos eleva.

Como Dios se hizo hombre rompiendo así nuestras cadenas.

#### 4. Otoitza.

Bideoko sentsazioak eta abestiaren proposamena jasoko ditugu, gure otoitzerako.

Juanen Berri Onaren irakurketa (Juan 15,14-16)

“Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiaren asmoen berri; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela”



Aita Santuak berak, Evangelii Gaudium testuan azaltzen du zertan datzan konpromisoa:

**EG 199.** Gure konpromisoa ez dago soilik ekintza edota sustapen eta laguntza programetan; Espirituak ez du soilik aktibismoa eragiten; batez ere, hurkoarengan jarritako *arreta* eragiten du, ondokoari enpatia osoz begiratua». Maitasunezko arreta hori pertsonenganako benetako kezka hasiera da; hortik abiatuta, pertsona horren ongizatea helburu izango dugu. Horrek esan nahi du pertsona pobreak beren ezaugarri guztiekin baloratuko ditugula; beren berezko ontasunarekin, beren izateko moduarekin, beren kulturarekin, beren fedea bizitzeko moduarekin. .... Pobreenen aldeko lehenengo otoitzik gabe, “Baliteke Ebanjelioaren iragarpena ez ulertzea, lehenengo karitatea izanik ere, edo hitz hutsetan geratzea, komunikazioaren gizarteak eragin hori baitauka”.

#### AZKEN OTOITZA

Mezularia pasatzen denean  
Ez nadila lo harrapatu,  
Beste zeregin batzuetan,  
Edo axolagabe.

Bere kontakizuna  
Ez dezala haizeak eraman,  
Ez dadila entzun gabe geratu.  
Mezularia pasatzen denean  
Ez bizkarra eman,  
Ez saihestu bere proposamena.

Edo bertso batean,  
Abesti batean entzungo dut  
Eta bere erritmoak hartuko nau.

Agian, lagun gisa agertuko da,  
Apurtutako izen batean edo  
Zatitutako ogian.  
Etxeko atea irekiko diot  
Bihotza jokoan jarriko dut  
Eta nire hitzetatik edango dut.

Eta orduan bizitza aldatuko zait.

José Mari Rodríguez Olaizola , sj.

Testu baten bidez agertuko da,

## 5. Dinamika

Gure konpromisoaren inguruko hausnarketa egiteko, honako testa egitea proposatu nahi dizugu. Baloratu modu pertsonal eta komunitarioan honako ezaugarriak. GOAZEN 2017ko tailer batean lan-talde batek proposatutakoak dira.

(bakoitzaren erreferentziazko ohiko komunitateko konpromisoa baloratzea proposatu daiteke).

### KOMUNITATE SOLIDARIO BATEN EZAUGARRIAK

<b>EZAUGARRIAK</b>					
1. Bere ondasunak <b>PARTEKATZEN DITU</b> eta ekarpen ekonomiko eskuzabalak egiten ditu.					
2. <b>ZERBITZUA EMATEN DU</b> , bere denbora, esperientzia eta ezagutzak doan emanaz.					
3. <b>ALAIA ETA ATSEGINA DA</b> . Bere lan egiteko eta harremanak egiteko moduan. Alai sentitzen da.					
4. <b>IKUSGAI DAGO</b> . Gizarte, herri eta auzoko beste eremu batzuetan ere hor dago.					
5. <b>LEHENTASUNEZKO AUKERA</b> . Pertsona babesgabeenei arreta berezia eskaintzen die.					
6. <b>ANAITASUNEZKO TRATUA ETA HARRERA</b> eskaintzen die kide guztiei. Gozoa eta abegitsua da komunitatera gerturatzeko diren pertsona berriekin.					
7. <b>INTEGRATZAILEA</b> , pertsona babesgabeenak ere komunitateko partaide izan daitezzen ahalegina egiten du eta erraztasunak ematen ditu.					
8. <b>XUMEA</b> da baliabide eta izateko moduari dagokienez.					
9. <b>IKUSPEGI IREKIA DAUKA</b> . Gauza berri eta aldaketen aurrean egokitzen daki, izateko beste estilo batzuk onartzen ditu eta komunitatea eta errealitatea ulertzen ditu.					
10. <b>ADEITSUA</b> . Adi egoten da eta komunitate barruko zein kanpoko pertsonen beharrezan erantzuten die. Bai bere inguruan, baita urrunagoko errealitateekin ere.					
11. Nazareteko Jesusengan errotutako <b>ESPIRITUALTASUNAREKIN</b> . Hazten eta ospatzen laguntzen digun espiritualtasun sendoa dauka.					
12. <b>ERANTZUKIZUNA PARTEKATZEN DU</b> . Komunitatearen egitekoak banatzen ditu eta pertsona guztiek hartzen dute erantzukizunaren parte bat. Guztiek daukate egiteko bat eta erantzukizun bat.					
13. <b>ARDURATSUA</b> . Bere errealitate soziala hobetzeko lanean parte hartzen du, bere inguruko beste eragile eta erakunde batzuekin batera.					
14. <b>ALDARRIKATZAILEA ETA BAKEZALEA</b> . Bidegabekeria salatzen du, bakea helburu.					

Testa modu indibidualean beteta, gure ezaugarri positiboak eta oraindik ere garatu behar ditugunak partekatuko ditugu.

## 6. Ekintza proposamena.

“PERTSONA KONPROMETITUA IZATEKO KATALOGOA” banatuko dugu, lagungarri gisa, proposamen eta aukera ugarirekin. (pertsonalak eta komunitarioak)

[KATALOGORAKO LOTURA](#)

## 7. Itxiera

Pertsona bakoitzari galdetu ahal zaio: Labur-labur esan, zer ekarpen egin dizu topaketa honek? Eta abestia berriz entzun edo berriz ere otoitza denon artean irakur dezakegu.